

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHUⁿ KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHUⁿ KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean, zerrendan bertan adierazita zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak. Baita merezimenduen behin-behineko zerrenda argitaratu zen ere. Zerrenda hori eskaerak aurkezteko fasean erregistratutako merezimenduak berrikustetik prestatu zen.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, IAEk ERABAKI DU ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarritz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsitzat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Onartutako eta baztertutako eskaeren behin-betiko zerrendako akatsen zuzenketa

UPV/EHUⁿ ikertzaile doktoreak kontratatze deialdian (2025), 2025eko uztailaren 15ean argitaratu zen onartutako eta baztertutako eskaeren behin behineko zerrendan akatsa antzeman denez, honako zuzenketa hau egin behar da:

POSTUPV25/97 kodea duen eskabideak (NAN: 463***88W) atzerriko zentro baten abala (10.2.f oinarria) eta zuzendariak gutxien dela, hiru seiurteko edo seiurteko bizi bat izatea, CNEAIK emana edo ebaluazio positibo baliokidea (4.1.b oinarria) egiaztatu behar du. Horretarako, 10 egun baliouduneko epea izango du (2025eko irailaren 26tik 2025eko urriaren

9ra) adierazitako akatsak zuzentzeko. Epe hori igaro ondoren, zuzendu gabeko eskaerak atzera egin duela ulertuko da.

Leioan, 2025eko irailaren 25ean

**IKERTZAILEEN KONTRATAZIO ETA PRESTAKUNTZARAKO BALIABIDEEN
KUDEAKETAREN ATALA**
IKERKETAERREKTOREORDETZA